

Euskal AEko BPG %1,8 igo da 2023 osoan


Sortutako lanpostu garbiak 16.000 dira, %1,7 gehiago

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) %1,8 igo da 2023an, 2022aren aldean, Eustatek egindako Hiruhileroko Kontu Ekonomikoen kalkuluen arabera. Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokide gisa neurtuta, %1,7 hazi da urtean zehar, hau da, 16.000 lanpostu inguru sortu dira.

Kontu hauek egiteko unean eskura zegoen koiunturako informazio ekonomikoa aztertuta, ikus daiteke, 2023an, balio erantsia industrian, eraikuntzan eta merkatuko zerbitzuetan hazi dela, baina 2022an baino erritmo txikiagoan.

Euskal AEko BPGren aldakuntza-tasa. (%)

Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak. Aurrerapena

2023ko **laugarren hiruhilekoari** dagokionez, aurrekoaren aldean BPGk %0,4 egin du gora, eta aurreko urteko hiruhileko beraren aldean %1,6 egin du gora.

2023ko azken hiruhilekorako aurreikusitako lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua aurreko urteko azken hiruhilekoko baino %2,0 handiagoa da. Hiruhileko arteko terminoetan, laugarren hiruhilekoa 2023ko hirugarrenaren aldean, %0,5eko gehikuntza zenbatetsi da.

Datorren **martxoaren 8an**, Eustatek BPGaren eta enpleguaren zenbatespen bereiziak argitaratuko ditu 2023ko laugarren hiruhilekoko Kontuetan, unean eskuragarri ez zegoen koiunturazko informazioa abiarazi ondoren.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62